

LAN PREKARITATEA

Langabezia-tasek behera egin dute, baina sortu diren enpleguak ez dira kalitatezkoak eta ez dute emantzipatzeko diru-sarreraren jarraitutasuna eta duintasuna bermatzen. **Aldi baterako kontratuak** eta **lanaldi partzialak** prekaritatearekin zuzenean lotuta daude.

Enplegu egoera prekarioak zuzenean eragiten dio bizitza-proiektu autonomoa gauzatzeko aukerei eta, ondorioz, emantzipatzeko egoerari ere.



PROPOSAMENA

- > Gazteen **enplegarritasuna sustatzeko kalitatezko formulak** sortu behar dira.
- > Ekintza positiborako neurriak (gazteriari loturiko klausula sozialak, gazteentzako kupoak gorde, gazteentzako arreta espezializatua, belaunaldi arteko erreleboaren sustapena, gizarte laguntzak lortzeko oztopoak kendu).
- > Neurri aktiboak (kontratazioaren sustapena, enplegurako formazioa, ekintzailletza).
- > Lan ikuskaritzaren aldarrikapena iruzurrezko baldintzei aurre egiteko.

Antolatzailea:



Euskadiko
Gazteriarren
Kontseilua
Consejo de
la Juventud
de Euskadi

Diru-laguntzailea:




GENEROEN ARTEKO SOLDATA ARRAKALA

(2018. urteko datuak)



- Gazteen %68,1 **aldi baterako kontratupean** (%70,2 emakumeak, %66,2 gizonak)

- Lanean ari ziren gazteen %30,3 **lanaldi partzialetan** (%39,6 emakumeak, %22,1 gizonak)



- **Soldata** murriztuagoak (emakumezkoek gizonezkoek baino %25 gutxiago kobratu zuten)

Antolatzailea:



Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua
Consejo de
la Juventud
de Euskadi

Diru-laguntzailea:



EMAKUMEAK LAN EREMUAN


Emakume gazteek egoera zailagoa bizi dute.

- Aldi baterako kontratuak.
- Lanaldi partzialak.
- Soldata murriztuagoak.
- Diskriminazio horizontala edo lan segregazioa.
- Diskriminazio bertikala (kristalezko sabaia).
- Emakumezkoek egiten duten lanei balio sozial eta ekonomiko txikiagoa ematen zaie.

Zaintza lanak emakumezkoek hartzen dituzte bere gain, haientzat lanaldi bikoitza edo hirukoitza adierazten duelarik.

PROPOSAMENA

- > Ezinbestekoa da gazteen enplegura bideratutako politika publikoetan genero-ikuspegia txertatzea.
- > Familia eta lanaren arteko kontziliazio neurriak aplikatzea.
- > Soldata arrakala ezabatzeko zigor gogorragoak jartzea, benetako berdintasunera iristeko tresna bezala.



Antolatzailea:




Diru-laguntzailea:



DATU GAURKOTUEN BEHAR NABARIA

Beharrezkoa da gazteen lan kontratuen lan baldintzen nolakotasunak ezagutzeko:

- Datuen eguneratzea beharrezkoa da errealitatea ezagutzeko, hauetan genero-perspektiba eta adin tartea kontuan izanik.
- Genero bitarrean kokatzen ez diren pertsonak kontuan hartzea datu baseetan.



Antolatzailea:



Diru-laguntzailea:



SOLDATEK EZ DUTE EMANTZIPATZEA AHALBIDETZEN

- EAEko 16-29 urteko gazteen **bataz-besteko soldata 1.093€** zen (1.157€ gizonak/ 1.025€ emakumeak) (2017an) 2018an pixka bat igo ziren **1.164€** (gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunaren datua falta da).
- Soldata hobekuntza bai, baina gazteen emantzipatzeko aukerak goitik behera aldatzeko adina aldaketarik ez da egon.
- **Etxebizitza librea alokatzearen kostua.** 18-29 tarteko gazte batek soldata garbiaren %88,3 erabili behar du alokairurako.
- Soldataren %30 zorpetze onargariaren gehienekoa, %40 jada gehiegizko ahalegin ekonomikoa.
- Gaur egun ditugun zifrak oso larriak dira. 18-29 tarteko emakumeen kasua are larriagoa da (%94,9). Gizon gazteen kasuan, ordea, %84,3.

Alokairuaren burbuila: EAEko batez bestekoa, 1.051,3€ (Gasteiz 1.070,1€, Bilbo 1.075,6€, Donostia 1.305,2€)



PROPOSAMENA

> Gutxieneko soldata duina ezarri soldaten minimoak ezarriz diskriminazio mota guztiei aurre egiteko.

Antolatzailea:



Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua

Consejo de
la Juventud
de Euskadi

Diru-laguntzailea:

